

# MARMAR eta KARKAR

FESTA BASATIA!

TRACEY  
CORDEROY

LEE WILDISHEN  
MARRAZKIAK

ITZULPENA:  
USOA WYSSENBACH





# ISTORIOAK

1) FESTA BASATIA!

7

2) ILETSUA ETA ITSUSIA! 37


3) TXAKUR MAKURRA! 69





# FESTA BASATIA!





## LEHEN KAPITULUA

*Burrrrrrrrrrr!* Marmarrek burua hozkailuan sartu, goitik behera arakatu, eta orro egin zuen. Huts-hutsik zegoen! Ez zeukaten ezer: ez lizundutako gaztarik, ez pastel iletsurik, ez eta labezomorro-gutiziarik ere. Eta hustubideko ile enpanadaren azken puska Karkarrek jan zuen!

Marmarren sabelak orro egin zuen berriro; goseak amorratzen zegoen!

—Karkarrontzi! —oihu egin zuen haserre burua hozkailutik atera gabe—. Zatoz hona!

# MARMAR eta KARKAR

Karkar ttapa-ttapa sartu zen sukaldean.

—O, ez! Trabatuta geratu zara! —esan  
zuen troll berde txikiak larrituta—. Lasai,  
neuk aterako zaitut!

Azazkalak Marmarren ipurdian  
hondoratu, eta tiraka hasi zen  
eroen moduan.

